

JUAN VICENTE ALIAGA

1. Azken hamarkadetako ekarpen teknologiko nagusiei esker -bideoa, DVDa, ordenagailuak...- arte ederreko fakultate bateko irakaskuntza dibertsifikatu egiten da, arindu, eta ez da horren monotonia gertatzen. Ikasleek beti nahiago izaten dute proiektio bat ikasgelan azalpen magistral bat baino gehiago. Teoriak, tamalez, ez du oso ospe ona, ezta eredu tradizionalei ihes egiteko eta eztabaida bultzatzeko transmititzen denean ere. Baliabide teknikoak, duela gutxi arte ia diapositibak eta kasete grabazioak maneiatzera mugatuta zeudenak, eskurago egoteak berehalakotasuna ekartzen du, era berezian ikasgelan Interneteko loturaren bidez, eta gainera *in situ* argi daitezke edozein gairen inguruan sor litezkeen zalantzak.

Hala ere, dena ez dira abantailak: interneten dabilen informazioaren eragin perbertso batek "kopiatu eta itsatsi" teknika sustatu du ikasle alferrengan; hartara, nire ustez norberaren diskurtsoa antolatzen ikasteko helburua duen datu bilaketa eta testu irakurketa imitaziozko jarrera errutinazko bihurtzen da, eta, okerragoa dena, ikasleek ez dute hori aitortzen. Horrenbestez, jarrera makurra da, eta ahaleginaren kulturari zilegitasuna kentzen dio. Funtsezkoa da ikasleek bilatzaileen bidez lortzen dituzten datuak iragazten eta balioesten ikas dezatela.

Informazio eta komunikazio azkarraren kapitalismo menderatzailearen garai honetan sartuta gauden ikusizko kulturak askotan ez du hausnarketa lasaia errazten. Web orri batetik lortutako datuak pilatzeak ez du esan nahi testu bat edo irudi bat bereizten eta ulertzen jakitea. Ez nago inola ere teknologia berrien aurka, uste dudalako hainbat eta hainbat aukerari atea zabaltzen dietela, baina ihes egiten dut liluratze errazetik eta memelokeria tekniko hutsetik, azken batean politizatuta baitago.

2. Valentziako Unibertsitate Politeknikoko nirea bezalako fakultate baten zorigaitzerako, kultur ikasketek puntako liburutegi espezializatu baten apalean eskegitako etiketaren usaina dute batez ere, edo erabilera erreal gutxiko kanpoko asmaketarena. Salbuespenak salbuespen, Valentziako arte ederretako irakasleak gutxi dokumentatuta daude, eta ez dira nabarmentzen beren kultur prestakuntzagatik edo artearen inguruko hausnarketaren esparruetan egindako ekarpen kritikorengatik. Hori esanda, funtsezko deritzot ikasleak kontzeptu generiko eta teorikoen eta zapaltzen duten lurraren, hau da, bizi diren hiriaren artean lotura bat finkatzeko gai izateari. Niretzat lehentasuna dauka hiriaren errealitate artistiko eta kultural desberdinak ezagutu ditzaten sustatzea: hasteko, komenigarria da Valentzia hiriak dituen zenbait azpiegiturak (museoak, galeriak, liburutegiak, ekoizpen zentroak...) kokatzea eta haien funtzionamendua ezagutzea. Garrantzitsua da halaber jakitea zer arte praktikak garatzen diren bakarka zein artista kolektiboen artean (gutxi dira), eta non gauzatzen diren, zein erakusketa gunetan (alternatiboak, galeriak, instituzionalak, sarea...). Era berean, interesgarria da arte eta kultura arloko argitalpenak (*Mono, Lars, Debats, Pasajes...*) eskura izatea, tokikoari dagokion pentsamendua, baita nazio zein nazioarteko esparruari dagokiona ere, garatzen sakontzeko.

Hiriak, eta oro har Valentziako Autonomia Erkidegoak sortzen duena ongi ezagutzeko bizi kultural eta politikoaren berri doia izan behar da interneteko eztabaidaguneen (hala nola, e-valencia.org eztabaidatua), tokiko prentsaren, irratiazen eta telebistaren bidez. Jakina, bereganatutako ezagutza guztia bideratu behar da ikaslearen eta hiriaren arteko lotura

bultzatuko duten ikasgelan egindako ariketen bitartez, bide bat delakoan teoria eta praktika, globala eta tokikoa elkarlotzeko.

3. Nire irakasle praktika hainbat ezagutza esparrutan eta ikasketa arazoan inguruan artikulatzen da: arazo horietako bat komisariotzari, erakusketen historiari eta haien eragin sozialari dagozkien kontuekin du zerikusia. Aztertutako beste arazo bat artearen eta politikaren arteko teilakatzea da, bereziki azpimarratuz genero, sexualitate gaitan (ikasketa feministak, gay, lesbianoak, queer). Orobat, arte ekoizpena alor postkolonialean arakutzen du irakatsitako ikasgai batek. Era berean arte alorreko indarkeriaren irudikapen desberdinak aztertzen dira ikastaldian, ikuspegi kontestualizatu, historiko eta politiko batetik. Kontuan hartuta ikasgai multzo hori, jarduera jakin batzuk egiten saiatzen naiz esperientzia partekatua sustatzearen. Haietako batek zerikusia du erakusketa proiektuak sortzearekin. Ikasle taldeek proposatutako zenbait kontzeptu aukeratu ondoren, azaldu egiten dira erakusketa bat -kasu honetan birtuala- prestatzean sor daitezkeen arazo guztiak. Aukeratutako gaien eztabaida, adostasuna eta desadostasuna bultzatzen da powerpoint aurkezpenen bidez eta interbenitu beharreko espazioa bistaratzea ahalbidetzen duten maketak eraikita, lanen miniaturak ipinita. Horretarako Valentzia eta beste hiri batzuetako zenbait espazio errealean planoak dauzkagu. Mintegi laburrak ere antolatzen dira, ikasleek beraiek txandaka prestatuak, ikasturtean proposatutako gaien inguruan, ikasleen parte-hartze erreal eta kritikoa errazteko. Taldelana eta norberekoitasunaren kritika dira bi ardatz nagusiak, ikasleek ikas dezaten beren ezagupenak partekatzen, zeregin desberdinak egiten eta norberaren zein besteen lana zalantzan jartzen. Hori dela eta, jendaurreko aurkezpena (aukeratutako gai baten inguruan gidoi antolatu sistematiko bat idatzi ostean ikaslea jendaurrean hitz egiten ohituz joan dadin) esperientzia oso garrantzitsua da, beti besteek begirunez zalantzan jar dezaketena. Bestelako jarduerak ere egiten dira, hala nola bisitaldi gidatuak erakusketetara, liburutegietara, artisten tailerretara...

Juan Vicente Aliaga Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Arte Ederretako Fakultateko irakaslea da. Idatzi ditu “Bajo vientre: Representaciones de la sexualidad en la cultura y el arte contemporáneos” (1997) eta “Arte y cuestiones de género” (2004). Komisarioa erakusketetan: Valie Export (Camden Arts Centre, Londres, 2004), Hannah Höch (Reina Sofia Museoa, Madril, 2004), Pepe Espaliú (Reina Sofia Museoa, Madril, 2003), “Micropolíticas. Arte y cotidianidad: 2001-1968” (EACC, Castelló, 2003), Claude Cahun (IVAM, Valentzia, 1999), Mirosław Balka, (IVAM, Valentzia, 1997). *Artforum* aldizkariaren Espainiako berriemailea.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu